

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	EMAITZEN BALORAZIOA, ETA EDIZIOKO ETA POSTPRODUKZIOKO MATERIALEN KUDEAKETA	Iraupena	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF0816		
Lanbide-arloa	IRUDIA ETA SOINUA		
Lanbide-eremua	Ikus-entzunezkoen produkzioa.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ikus-entzunezko lanen edizioa eta postprodukzioa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Edizioa eta postprodukzioa eragiketak	Iraupena	110
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Edizioa eta postprodukzioa gauzatzea	Iraupena	80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0949_3 EDITATZEA, POSTPRODUKZIOKO TRESNAK ETA HAINBAT JATORRITAKO MATERIALAK TXERTATUZ gaitasun-ataleko LB3 eta LB4 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Edizio jakin baten emaitzak ebaluatzea, hutsuneak detektatzeko eta erritmoaren eta iraupenaren azken doikuntzak egiteko.
- E1.1 Programaren komunikazio-helburuen lorpena proiektuaren komunikazio-helburuekin alderatzea.
 - E1.2 Erritmo narratiboaren lorpena ebaluatzea, planoak aukeratuz eta konbinatuz, eta programaren asmo narratiborako egokia den egitura duen ikusiz.
 - E1.3 Programaren denbora partzialen eta totalen lorpena kontrolatzea, proiektuan definitutakoari dagokionez.
 - E1.4 Planoen artean irudien eta soinuaren jarraitutasunari eusten zaion aztertzea.
 - E1.5 Efectuen funtzionaltasun narratibo eta espresiboa nahiz haien zuzentasun tekniko ebaluatzea.
 - E1.6 Irudien eta soinuaren banden arteko sinkronia kontrolatzea.
 - E1.7 Ebaluazio-prozesuan detektatutako anomaliak zuzentzeko egin behar diren doikuntzak eta aldaketak proposatzea.
- A2: Kanpo-plataformetan postprodukzio-tratamendua behar duten materialen informazioa trukatzeko protokolo estandarizatuak erabiltzea.
- E2.1 Beharrezkoak diren material eta datu erantsi guztien eskuragarritasuna bermatzen duten prozesuak deskribatzea, lan osagarriak egiteko beste edizio- eta postprodukzio-plataforma batzuetan.
 - E2.2 Truke-datuen eta -materialen inportazioa eta konformazioa aztertzea.
 - E2.3 Informazioa trukatzeko protokolo estandarizatuenetan oinarritutako dokumentuak egitea, kanpo-plataformetako lana errazteko.
- A3: Edizioan erabilitako materialak sailkatzea, biltegitratzeko eta gerora baliatzeko.
- E13.1 Edizioan erabilitako soinu-, irudi- eta infografia-materialak antolatzeko eta artxibatzeko teknikak deskribatzea.
 - E13.2 Edizio-proiektua osatzen duten datuak antolatzea eta gordetzea, geroko egokitzapenak, eguneratzeak edo segimenduak errazteko.
 - E13.3 Lortutako dokumentuak aztertzea eta euskarri ateragarrietan biltegitratzea, garraiatzeko, edo aurretiaz zehaztutako truke-sare batean eskuragarri izateko.
- A4: Proiektu jakin batean erabilitako biltegitratze-unitate informatikoak kudeatzea, eta haien edukiera eta konfigurazioa optimizatzea.
- E14.1 Edizio- eta postprodukzio-prozesuetan erabilitako euskarri fisikoak birziklatzeko beharra ebaluatzea, gerora baliatzeko.
 - E14.2 Lekua egitea biltegitratze-unitateetan, artxiboak ezabatuz.
 - E14.3 Biltegitratze-sistema informatikoetan mantentze-lanak egitea, baita testak ere, optimizatzeko.

Edukiak

1. Edizioaren eta postprodukzioaren kalitate-kontrola

- Edizio-emaitzen ebaluazioa, hauek lortzeari dagokionez:
 - Komunikazio-helburuak.
 - Erritmo narratiboa.
 - Denbora partzialak eta totalak
 - Irudiaren eta soinuaren jarraitutasuna.
 - Efectuen zuzentasuna eta funtzionaltasuna.
 - Irudi eta soinuaren banden arteko sinkronia.
- Detektatutako anomaliak zuzentzeko prozedurak.
- Sortutako produktuaren babes, sailkapena eta dokumentazioa.
- Materiala trukatzeko sistemak eta protokoloak.

2. Materialen sailkapena eta biltegitratzea

- Materialak plataformen artean sailkatzeko teknikak:
 - Antolaketa eta artxiboa.
 - Eguneratzea eta ondorengo segimendua.
 - Eskuragarritasuna kanpo-plataformetan.
- Materialen kudeaketa eta birziklapena
 - Euskarri fisikoen birziklapena.
 - Artxiboak ezabatzeko irizpideak.
 - Biltegitratze-sistemen mantentze-lanak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0815 Edizioa eta postprodukzioa gauzatzea.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ikus-entzunezko lanen edizioa eta postprodukzioa